

KLIMA ALDAKETARI BURUZKO IKERKETAK EAEN I

Posted on 16/04/2010 by Naider



Aspaldiko partez, Ideien baratzako blogean, euskarazko fruitu bat izango dugu. Jakin badakigu klima aldaketa arazo larria izanen dela, agian ez epe motzean, baina epe luzean, zientzilarik gehienek ustetan.

Leku askotan azaltzen diren nazioarteko ekimenak, COP eta IPCC-aren txostenak alde batera utzita, Euskal Autonomi Elkartearen egiten ari diren ekimenen berri ematea otu zait. Horretarako Martxoan Euskalduna Jauregian antolatutako "[KlimaGunea](#)"-aren kronika txiki batekin hasiko gara. Klima Gunea, [BC3](#) antolatutako jardunaldi bat izan zen, non Unibertsitateko ikerlariak beraien lanen berri eman ziguten.

[Anyi Markandiyak](#) BC3-ak dituen ikerketa ildoak ezagutarazi zituen, gehienbat klima aldaketaren egokitzapenari zuzenduta daudenak. Hala ere badituzte Nazioarteko politika eta klima aldaketaren modelizazioan lan egiten duten ikerlariak ere.



[EHU](#)-ren aldetik **Alex Cearreta**, **Marta Escapa**, **Jon Sáenz** eta **Javier Loidi** ikerlariak beraien lanen berri eman zuten.

Alex Cearreta, [estratigrafia eta paleontologi sailetik](#), klima aldaketak duen eragin garrantzitsuenetako bat ikertzen diahardu: itsas mailaren igoera. Oraingoz, Urdaibai inguruan egin ditu ikerketak eta iraganean izandako aldaketen berri eman zigun.

Marta Escapa-k ekonomia eta klima aldaketaren arloan burutzen ditu bere lanak, eta honen kostu eta eraginekonomikoak lantzen ditu, EAE-n eta bere ekonomian izan ditzakeen ondorioak ikertuz.

Jon Sáenz-ek berriz [EOLO](#) izeneko taldean egiten du lan, klima aldaketaren eredu fisiko-matematikoak ikertuz. Argi utzi zigun, klimaren egoera aurreikusteko oraindik ez dagoela eredu fidagarriarik, dauden gertaera eta faktore kopurua dela eta; ez behintzat lehenengo 15 km-etan!

Aurkezpenak bukatzeko, **Javier Loidi**k, [K-Egokitzen](#) proiektu estrategiko barruan, landare biologia alorrean egiten ari diren ikerketak azaldu zizkigun. Batetik Dendrokronologia erabiliz iraganeko klima aztertzen saiatzen dira, eta bestetik mendi larreetako espezieen egokitasun ahalmena frogatzen dihardute.

Bukatzeko Nieves Terán, EAE-ko Ingurumeneko sailburordeak, o "Klima Aldaketaren Lege" baten inguruan lanean dihardutela azaldu zuen, urte bukaerarako prest egotea espero duelarik.

Gai interesgarri asko daude martxan Klima Aldaketaren inguruan EAE-n, baina ikerlari eta gobernuko ordezkariak argi utzi zuten beraien artean ez dagoela koordinazio askorik. Agian BC3-ak lan hori egin dezake, baina gaur egun nabaria da Unibertsitate-Gobernu eta Teknologi zentruen arteko koordinazioan dagoen hutsunea, (ez zen [Klima Aldaketeren Aurrakako Planari](#) buruzko ez eta bere helburu estrategikoei buruz aipamenik egin, adibidez).

Klima aldaketa arazo korapilatsua da, eta denon artean bilatu behar zaio irtenbidea, beraz behar-beharrezkoa da eragile guztien artean koordinazio eta informazio fluxu egokit bat egotea, bai eta gizartearekin ere. Bakoitzak bere aldetik jotzen badu, jai daukagu.

There are no comments yet.